

7/02 IRIZPENA

Herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia (DBEA) sortzen duen Lege Aurreproiektuaren gainean.

Bilbon, 2002ko abenduaren 4an

I.- AURREKARIAK

Joan den urriaren 31n Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako idatzia sartu zen, zeinetan herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuaren gaineko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan esaten den bezala.

Lege Aurreproiektu honen aurrekariak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995ko urriaren 24ko Arzetarauan eta, telekomunikazio elektronikoen alorrean intimitaterako eskubidea babestearen gaineko uztaillaren 12ko 2002/58/CE Arzetarauan eta datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan daude. Lege horretan ezartzen da Datuak Babesteko Agentziari esleitutako eginkizunak, Autonomia Erkidegoek edo beren lurralde esparruko Tokiko Administrazioek sortu edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategiei ukitzen dietenean, Erkidego bakoitzean diren organoek beteko dituztela. Era berean, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 9.2.a) artikuluan dio "Euskal Herriko herri botereek, beren eskumenaren esparruan, herritarren eskubide eta betebeharren gauzatze egokia zaindu eta bermatuko dutela", eta 9.2. d) artikuluan dio Euskal Herriko herri botereek "norbanakoaren eta berau txertatuta dagoeneko taldeen askatasuna eta berdintasuna eragingarriak eta benetakoak izan daitezten dauden oztopoak kentzera bideratuko diren neurriak hartuko dituztela".

Lege Aurreproiektua jaso eta berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei kopia bana bidali zitzaizen, egoki irizten zieten proposamenak eta iritzia helarazteko eta proposamen eta iritzi horiek Batzorde Iraunkorrera edo dagokion Lan Batzordera bideratzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarrita dagoen bezala.

Azaroaren 22an Gizarte Garapeneko Batzordeak lan bilera egin zuen, eta Osoko Bilkuraren onespenerako aurkeztu zen Irizpen proposamena formulatu zuen. Osoko Bilkurak, 2002ko abenduaren 4an izandako bileran, irizpena onestea erabaki zuen.

II.- EDUKIA

Herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuaren testua zergatien azalpenak, guztira hogeita sei artikuluko dituzten hiru Goiburuk, hiru Xedapen Gehigarrik eta Amaierako Xedapen batek osatzen dute, ondoko edukiaz:

Zergatien azalpena:

Hasierako zergatien azalpenean esaten da informatikaren erabilpenak gaur egun pertsona fisikoen gaineko datu mordoak tratatzen lagatzen du, beren intimitatean sartzeari dakarten alderdiak ezagutzera ere helduta, beraz, lege antolamenduek ezin dute ezer egin gabe geratu balizko erabilpen gaiztoen aurrean, eta teknologiaren garapenaren eta herritarren intimitate pertsonalaren eta beren eskubideen erabateko gauzatzearen arteko oreka mantenduko duen jardueraren alde egin behar dute.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean DPBL) jasotzen den Konstituzioaren 18.4 artikulua agindua da hori, non, oinarritzko eskubidearekin lotutako beste gai batzuek gain, Datuak Babesteko Agentziaren araubide juridikoaren funtsezko alderdiak araupetzen diren. Datuak Babesteko Agentzia 95/46 CE Arzteztarauak hizpide duen kontrolako agintaritzaren independente gisa eratzten da. DPBLk dio Agentzia horri esleitutako eginkizunik gehienak, Autonomia Erkidegoek edo beren lurralde esparruko Tokiko Administrazioek sortu zein kudeatzen dituztenean, Erkidego bakoitzean direneko organoek gauzatuko dituztela, eta organo horiek kontrolako agintaritzatzat hartuko direla, beren egitekoa betetzeko erabateko independentzia eta objektibotasuna bermatuko zaielarik.

Europar Batasunaren esparruan, Erakundeek gai hau 1997ko ekainaren 17ko Amsterdam-eko Tratatuan araupetu dute, zeinek Europar Batasunaren Eraketako Tratatuari oraingo 286. artikulua gehitu dion, Batasuneko Erakunde eta Organismoei, datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio libreakin aldetik, pertsonak babesteko batasuneko ekintzak aplikatu diezazkieten aginduz.

Hori baino lehen, Europar Parlamentuak eta Kontseiluak 1995eko urriaren 24an 95/46 Arzteztaraua erabakia zuten, non datu pertsonalen tratamenduari dagozkion nazioetako legediak eskubide eta askatasun horien errespetua bermatzeko direla dioen hartsarrea jasotzen den, bereziki bizitza pribatuaren errespeturako eskubidea, eta non dioen datu pertsonalak babesteko funtsezko elementu bat kontrolako agintaritzaren bat sortzea dela, estatu kide bakoitzean besteren mendetasunik gabe jardungo dena, ikerketako botereak zein interbentziokoak izan. Arzteztarauak hiru urteko epea ematen die Estatu kideei, bertan ezartzen dena betetzeko behar diren lege, arautegi eta administrazioko xedapenetara moldatzeko.

Geroago, Europar Parlamentuarena eta Kontseiluarena ere den telekomunikazioen alorrean datu pertsonalen tratamenduaren eta intimitatearen babesaren gaineko 1997ko abenduaren 15ean 97/66CE Arzteztarauak aurreko 95/46 CE Arzteztaraua osatu zuen, telekomunikazioen alorrean datu pertsonalak tratatzeari zegokionean. Beste jarduerak batzuk Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko abenduaren 18ko Arautegian araupetuta daude, Batasuneko Erakundeek eta Organismoei datu pertsonalak nola tratatu behar dituzten kontuaren gainean, Arautegi horretan kontrolako agintaritzaren independentea eratuz (Datuen Babesaren Europako Ikuskatzailea), edo berez datu pertsonalen babesa araupetzeko xedea ez duten Arzteztarau proposamenetatik datozen, esaterako, komunikazio elektronikoaren sareak eta zerbitzuak arautzeko marko erkidearen gaineko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren Arzteztarau Proposamenaren kasua (2000/12/19ko C 365 e Egunkari Ofiziala).

Xedapenak:

Xedapen orokorren **Lehenengo Goiburuak** 1. artikuluan Legearen xedea zehazten du, bere arauketaren eta DPBAren mende geratzen diren fitxategiak mugatuz (sortu edo kudeatzen dituen Herri Administrazio, Erakunde zein Korporazioari adituz). Mugatze hori 2. artikuluan osatu egiten da, legea aplikatuko ez zaien fitxategiak zerrendatuz. 3. artikuluan arautu nahi den gaiaren berriazko terminologia zehaztu eta bateratzeko beharrezkoak diren hainbat kontzeptu definitzen dira. 4. artikuluan fitxategiak sortu, aldarazi eta ezabatzearekin zerikusia duten alderdiak arautzen dira. 5. artikuluan datu pertsonalak jasotzeko ezarritako mugak adierazten dira. 6. artikuluan datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesatuei aurretiaz eman beharreko informazioa du hizpide. 7. artikuluan 1.1 artikuluan esaten dituen Herri Administrazio, Erakunde ta Korporazioetako Gobernu Organoen fitxategietan dauden datu pertsonalen segurtasuna

bermatzeko fitxategien arduradunek prestatu eta ezarri beharko duten segurtasuneko dokumentuaren gutxieneko edukia ezartzen du. 8. artikuluan datu fitxategien, telekomunikazio sareen eta erabiltzaileen gidetako segurtasun neurriak ezartzen dira. 9. artikulua interesatuen eskubideak gauzatzeko prozedura erakusten du. 10. artikulua DPBAren aurrean erreklamazioak egiteko prozedura azaltzen du.

DPBA hizpide duen **Bigarren Goiburuan**, 11. artikuluan, agentzia hori sortu eta bere araubide juridikoaren funtsezko alderdiak araupetzen dira. 12. artikulua haren zerbitzura ari diren langileen erregimenaren gaineko arauak jasotzen dira; 13. artikulua bere xedeak betetzeko edukiko dituen diru baliabideak azaltzen ditu; 14. artikulua aurrekontuaren araubide ezartzen du; 15. artikulua gobernu organoak zein diren esaten du; 16. artikulua zuzendariaren kargua eta eginkizunak arautzen ditu. Zuzendariak Kontsultarako Kontseiluaren laguntza edukiko du, 17. artikulua dioen bezala. 18. artikuluan DPBAren eginkizunak definitzen dira. 19. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen da, DPBAren halaberharrezko organo gisa. 20. artikulua DPBAk ikuskatzeko duen ahalmena arautzen du, eta 21. artikulua zuzendariak fitxategiak mantendu eta kontrolatzeko neurri zuzentzaileak hartzeko baliatuko dituen betekizunak zehazten ditu.

Hirugarren Goiburua, zehatzeko araubidearen gainekoa, 22. artikuluan subjektu erantzuleak mugatuz hasten da. 23. artikuluan urratzeak sailkatzen dira, arin, larri eta oso larritan. 24. artikulua bakoitzari dagozkion zehapenak ezartzen ditu. 25. artikuluan arreta berezia jartzen da Legea aplikatzen zaien fitxategien jabe diren Administrazio, Erakunde eta Korporazioen zerbitzura ari diren langileek egindako urratzeen kontuan, fitxategien titularren ezaugarri bereziengatik. 26. artikulua fitxategiak geldiarazten direneko suposamenduak ditu hizpide.

Azkenik, lehenengo xedapen gehigarria DPBAren dauden fitxategien ezinbesteko komunikazioaz ari da; bigarrena Autonomia eta Foru mailako erakundeek beren eskumenetan aritzeko Eustaten jarritako Udal Erroldetako datuen erabilpenaz; hirugarrenak dio lege hau LHBk, EGBk, Kooperatiben Kontseilu Gorenak, Epai-Batzordeak eta Eusko Legebiltzarren Lege baten bidez sortutako nortasun juridikodun edo gabeko beste edozein Organismo edo Erakunde sortu edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategiei ere aplikatuko zaiela, eta laugarrenak Arartekoaren eta Estatuko Datuak Babesteko Agentziaren eskumenak errespetatu behar direla. Amaierako xedapen bakarrak Eusko Jaurlaritzari lege hau aplikatu eta garatzeko baimena ematen dio.

III.- OHARTARAZPENAK

Ohartarazpen orokorrak

Herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuak Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak EAEko autonomiaren eta berezko erakundeen esparruan estatuaren esparruan, abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan datu pertsonalak babesteko ezarritako araudi orokorra osatzeko eta, izatezko babes horretaz arduratzeko funtsezko erakundea izan dadin, Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko asmoa duela erakusten du. Horregatik, interes orokorreko legea da, eta egokitasuna, prestatzeko ekimena eta aurkeztutako dokumentazioa oso ondo baloratu behar ditugu.

Izan ere, Europar Batasuneko Estatu kiderik gehienek dagoeneko datuen tratamendua eta elkartrukea araupetuta daukate, norbanakoen eta gizartearen interesak modu eragingarrian babestea lortzeko. Jada 1981eko urtarrilaren 28an Europar Batasunak, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari zegokionez, pertsonak babesteko Ituna onetsi zuen, eta Espainiako Ahalguztiduna Itun horri 1982ko urtarrilaren 28an atxiki zitzaion, atxikimendu hori 1985eko azaroaren 15eko BOEn berretsi eta argitaratuz. Horren ostean Europar Parlamentuaren ildo bereko bi Arteztarau onetsi dira: urriaren 24ko 95/46 Arteztaraua, , pertsona fisikoaren babesaren gainekoa, datu pertsonalei eta zirkulazio libreako dagokionez, eta abenduaren 15eko 1997/66 Arteztaraua, uztailearen 12ko 2002/58/CE Arteztarauak indargabetua, telekomunikazio elektronikoen alorreko datuen tratamenduari eta intimitatearen babesari buruzkoa.

1978ko Espainiar Konstituzioak, *Oinarrizko Eskubide eta Betebeharrak* izeneko I. Goiburuan, 6.2. artikulua (*ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenen gaineko aitortpenak egitera*), 18.1 artikulua (*ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarerako eta norbere irudia babesteko eskubidea bermatzen da*) eta 18.4 artikulua (*legeak informatikaren erabilpena mugatuko du herritarren ohorea eta intimitate pertsonal eta familiarra eta beren eskubideen erabateko gauzatzea bermatzeko*) sartzen ditu, non ohorearen eta intimitatearen errespetuaren konstituzio-hatsarrea ezartzen den, oinarrizko eskubidetzat hartuta, eta informatikaren erabilpenaren arauketa ondorengo Lege batean arautzeko lagatzen den.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa indargabetzen duenak, konstituziozko xede hori betetzeari erantzuten dio. VI. Goiburuan, 15/1999 Lege Organikoak Datuak Babesteko Agentzia (aurrerantzean APD) eta, APDn integratutako organo gisa, nagusiki herri titularitateko zein titularitate pribatuko fitxategi automatizatuak inskribatzeko, Datuak Babesteko Erregistro Orokorra sortzen ditu. Lege horren 41. artikuluan Autonomia Erkidegoetan dagozkien organoak sortu ahal izatea aurreikusten da, beren administrazioen datuen eta beren lurralde esparruetako Tokiko Administrazioen datuen gaineko eskumenaz.

Gaur egun beste Erkidego batzuetan Autonomia esparruko Agentzien hainbat proiektu daude. Madrilgo Autonomia Erkidegoko Datuak Babesteko Agentzia apirilaren 21eko 13/1995 legeren bidez sortu zen (lege hori Madrilgo Erkidegoak datu pertsonalen tratamenduan informatika nola erabili behar duen araupetzen duen ekainaren 16ko 13/1997 legeak aldarazi zuen), eta egun uztailaren 13ko 8/2001 Legeak (aurrerantzean LCAM) indargabetuta dago, Datuak Babesteko Kataluniar Agentzia apirilaren 19ko 5/2002 Legearen (aurrerantzean LCAC) bidez sortu zen bitartean.

Konstituzioan ezarritako oinarrizko hatsarre hauek Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 9.2. c) artikuluan sartzen ditu, non esaten baita "Euskal Herriko herri botereek, beren eskumenaren esparruan, herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren gauzatze egokia zaindu eta bermatuko dutela", eta 9.2 c) artikuluan ere bai, non esaten baita Euskal Herriko herri botereek "norbanakoaren eta berau txertatuta dagoeneko taldeen askatasuna eta berdintasuna eragingarriak eta benetakoak izan daitezen dauden oztopoak kentzera bideratuko diren neurriak hartuko dituztela".

Eusko Jaurlaritzaren Lege Aurreproiektu honi dagokionez, ez dago berritasun handirik LOPDren eta Madrilgo eta Kataluniako erreferentzien aldean, horien ia hitzez hitzeko idazketa baita, gero aipatuko ditugun eta, gure ustez, haiek hobetzen ez dituzten desberdintasun batzuekin bada ere. LOPDn baziren eta oraingo honetan ageri ez diren gauza batzuk bai aurkitzen dira, edo LCAMen zein LCACn bai dauden eta Aurreproiektu honetan aurreikusten dena hobetuko luketen kontuak.

Hartara, Lege Aurreproiektu honi ondoko iruzkin orokorrak egin behar zaizkiola uste dugu:

1.- Lege Aurreproiektu honen lege erreferentziak.

Lehenik eta behin, jada zaharkituta dauden arauen erreferentziak eguneratu behar dira. Zergatien Azalpenaren testuak telekomunikazioen alorreko datu pertsonalen tratamenduaren gaineko 1997ko abenduaren 15eko 97/66CE Arzetaraua aipatzen du, eta Arzetarau hori telekomunikazioen alorreko datu pertsonalen tratamenduaren eta intimitatearen babesaren gaineko uztailaren 12ko 2002/58/CE Arzetarauak indargabetu zuen.

Era berean, Zergatien Azalpenean Nizako Gailurrean datu pertsonalen babesaren gainean onetsitako Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunaren 8. artikulua espresuki aipatzea komeniko litzatekeela uste dugu, non espresuki esaten baita "*persona orok berari buruzko datu pertsonalak babes daitezen eskubidea daukala*", "*datu horiek zintzoki tratatuko direla*" eta datuon errespetua "*agintaritza independente baten kontrolaren mende geratuko dela*".

Bigarren, oro har 15/1999 legearen hainbat artikulua hitzez hitz berridazteko inolako erreparorik izan denean (esaterako, aurreproiektu honetako 10. artikulua 15/1999 legearen 18. artikulua berdin-berdina da), beste kasu batzuetan ere ez zuketzen hitzez hitzeko transposizio gehiago (aukera hobe baitezakeen legearen testua Lege

Organikora jo barik ulertu ahal izateko) edo, gutxienez, ohar-bideak egiteko erreparorik izan behar, Aurreproiektu honen hainbat atali sendotasun, argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa emango liokete-eta. Gai hau bereziki garrantzitsua da jada LOPDn araupetuta dauden eta datu pertsonalen tratamenduan pertsona fisikoen dituzten oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak babesteko sistema mugatzen duten funtsezko alderdiak diren datu pertsonalak jaso, herritarren eskubideak eta onestearen hatsarrea, datuak jakin, ezabatu, zuzendu, laga eta abarreko eskubideak gauzatzea bezalako kontuei dagokienez.

Bestalde, Berariazko Ohartarazpenetan xehetasun handiagoz azaltzen den bezala, LCAMen 7tik 12. artikulurainoko transkripzioa baliagarria litzateke ("Datu pertsonalen fitxategien eta fitxategion erabilpenaren gaineko erantzukizunak" hizpide dituen Atala), LOPDk espresuki araupetzen ez duen arlotxo bat arautzen baitu, eta hori Aurreproiektuaren barruan sartzea planteatzen den EAEren esparruan baliagarria izan liteke.

Inplikaturako eskubideen eta balore juridikoen garrantziarengatik, berezi deitoragarria dirudi tratamenduan inplikaturako guztia lotzen duen isilekotasunaren legezko betebeharra isiltzeak, eta horrela ulertu behar da, hau da, fitxategiaren arduradunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen dutenek isilean gordetzearen betebeharraren exijentzia legean espresuki aipatzea ezinbestekoa dela.

Hurrengo lerroetan beste gauza batzuk daudela ikusiko dugu, aurreko legeak arretaz irakurriz gero lege aurreproiektu honen gabezia batzuk konpondu ahal dituztenak, hobetzen lagunduz.

2.- Legearen aplikazioaren esparruan zehaztasun handiagoa sartu behar da.

Euskadiko EGBren ustez, arau honen azkeneko xedea, oinarritzko datuen babesaren gainekoa, hobeto definitu behar dela. Lege Aurreproiektu honetan esaten da bere xedea "... datuen fitxategiak... (eta) DBEA..." araupetzea dela. Bi xedeen arauketak, ordea, oinarritzkoagoa den eskubideren bat babestera bideratu behar da, zeren bestela hau legea barik arategia izan behar bailitzateke. Hartara, LOPDk 1. artikuluan esplizituki dio bere xedea "... pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarritzko eskubideak, eta bereziki pertsonen ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra bermatu eta babestea dela, datu pertsonalen tratamenduari dagokionean". Arau zehatz horren aipamen esplizituak, edo arauak dioena zuzenean errepikatzeak orain aldarrikatu nahi den autonomia erkidego mailako arauaren izpiritua ondo kokatzen lagunduko lukete, babestea lortu behar diren eskubideen garrantzi handia kontuan izanik.

Bestalde, Legearen aplikazioaren esparrutik kanpo utzitako fitxategiei dagokienez, arau autonomiko honetan araupetzen ez diren gai guztietarako 15/1999 Legea jo behar dela esatea komeniko litzatekeela uste dugu, Legearen aplikaziotik kanpo utzitako fitxategi batzuen jakintza berma dadin.

3.- Lege Aurreproiektuan pertsonen eskubideen berme handiagoak behar dira, bereziki datuak Herri Administrazio batek jasotzen dituenean

Deigarria da, eta bereziki harrigarria, herritarren datu pertsonalak lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek, oro har, ukitu baimenik behar ez izatea, horretarako, Aurreproiektuaren 5. artikulua araberan, nahikoa baita tratatzen diren datuak "egokiak, beharrezkoak eta esleitutako eskumenak gauzatzeke gehiegizkoak ez izatea"; hau da, Administrazioak ez du inoiz ukitutakoaren baimenik behar. Horrela, Administrazioek herritarren datu pertsonalak behar dituzten guztietan, herritarren baimenik gabe lortu ahal izango dituzte, tratamenduaren zilegitasun arauak errespetatzen direnean.

Horregatik, gure ustez Aurreproiektuak Administrazioari datu pertsonalen babesaren esparruan jarduerarako nahierako ahalmena ematen dio, eta ez-ohiko araubide hori ezin da justifikatu Legeak horrela jasotako datu pertsonalen tratamendua datuak "lortu diren helburu jakin, esplizitu eta zilegiatarako" erabiltzera soilik mugatzea.

Gainera, Lege Aurreproiektuari aurpegiatu behar zaio antolamendu juridikoak datuak babesteko eskubide eta hatsarreetaz onartzen dituen salbuespen guztiak bere egiten dituela, ez duela esplizituki adierazten ukituari bere datu pertsonalen tratamenduaren aurrean bere eskubideen defentsan gutxieneko bermea eskaintzen dioten eskubideen ezagumendua. Izan ere, ukituak aurretiaz informazioa izateko duen eskubidea, datuak tratatzeko bere baimenik behar ez denean tratamenduaren aurka egiteko eskubidea, edo datuen tratamendu batean oinarritutako bere jokabideen balorazioen inpugnaziorako eskubidea Aurreproiektuan ageri ez direnez, ukituaren datuen babesaren bermea modu berezian kaltetzen da Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioek datuak tratatzen dituztenean.

Horregatik, eragozpen gisa esan behar da Lege Aurreproiektuak ez duela datu pertsonalen babeserako eskubidearen funtsezko edukia osatzen duten eskubideen gauzatzea behar beste bermatu. Hartara, esaterako, datuak jasotzean informazioa izateko eskubideak arreata berezia merezi du, ukituak datuen babesean dituen eskubideak eta hatsarre guztiak zaintzeko duen garrantzi handiarengatik eta Lege Aurreproiektuak, ordea, ez du esplizituki azaltzen nola gauzatu behar den berme hori, hau da, informazioa adierazia, zehatza eta argi eta garbia izango da eta, halaber, ez du datuak interesatuarengandik ateratzen ez direnean informaziorako eskubidea esplizituki bermatzen, eta hori aurrerapen garrantzitsua litzateke datu pertsonalen babesaren esparruan.

Azken batean ukituak datu pertsonalak babestearen zaintzarako funtsezko berme gisa aitortuta dituen eskubideak aipatu eta espresuki ezagutu behar dira, datu pertsonalen babeserako eskubidearen eduki funtsezko eta baliaezina baita.

4.- Administrazioko antolamendua eta erantzukizunen esleipena

Lehenik eta behin, gure ustez interesatuak beren eskubideak fitxategien arduradunaren aurrean gauzatzeko prozedura ezin da Administrazio bakoitzaren esparru eskusiboaren nahieraren mende geratu. Hartara, Aurreproiektuaren 9. artikulua harrigarria da, zeren Administrazio bakoitzaren nahieraren mende lagatzen baitu egoki irizten dioten prozedura ezartzea eta, horrek, praktikan, esan nahiko luke interesatuak bere eskubideak zein Administrazioaren aurrean baliatu nahi dituen arabera eskubideen gauzatzearen eragingarritasuna desberdina izango dela eta, horrela, interesatua, alderdi horretatik, Administrazio bakoitzaren borondatearen mende geratzen da.

Bestalde, Lege Aurreproiektuaren testuak ez du datu pertsonalen tratamenduko zerbitzuen kontratuen arauketarik aurreikusten. Egiaztan, ez da ezer ezartzen tratatzen den fitxategiaren titularraren betebeharez, tratamenduaz hirugarren bat arduratzen den kasuetan, eta ez dira fitxategiaren arduradunak datu pertsonalen tratamenduan izango dituen eginkizun eta betebeharrak ere aurreikusten, ez eta zein erantzukizun egotz liezaiokeen ere, Legean esaten dena bete ezean. Beharrezkoa ematen du, hortaz, datuen tratamenduan hain sarri gertatzen den eta beste legedi batzuetan hain egokiro araupetu duten (LCAMeko 9. artikulua) fenomenoak kontuan har dadin.

Azkenik, komeniko litzateke datuak kudeatzen dituzten erakundeak datuen babesaren jarraipen etengabea egitera behartuko dituen prozedura bat definitzea, DBEAREN balizko ikuskaritza baten zain egon beharrik gabe (20. artikuluan esaten den bezala), erakunde horietan lan egiten duten langileei, erakunde barruko esparruan, legearen urratze guztiak salatzen utziko dien prozedura bat sartzeari (non DBEAK aldioro jarduera hauen erregistroa ikuskatuko lukeen), eta erakunde horietako langileei datuen jabeen datu pertsonalak ikusteko baimenak daudela egiaztatzeko aukera eskainiko dien prozedura bat definitzea.

5.- DBEAREN ERAKETA

Datuak Babesteko Euskal Agentzia Zuzenbide Publikoko Erakunde gisa sortu da, eta kontroleko agintaritza independente gisa eratu da, datu pertsonalak babesteko legedia betetzen dela zaintzeko eta nola aplikatzen den kontrolatzeko, bereziki datuen informazio, jakintza, aurka egite, zuzenketa eta ezereztatze eskubideei dagokienez.

Horregatik, datuen babesaren erakunde esparruan, gure iritziz, Zuzendariaren irudia giltzarria da, eta bere protagonismoa, batez ere, esleituta dituen eginkizunen egintzan inoren mendetasunik ez izatean datza. Ez dirudi, ordea, Lege Aurreproiektuaren testuan DBEAren Zuzendariaren independentzia funtzionala erraztuko duten baldintza egokiak biltzen direnik, hainbestetan aldarrikatutako Agentziaren Zuzendariaren independentzia asmo adierazpen hutsa izan ez dadin lortzeko.

Era berean, Kotsultarako Kontseiluaren DBEAren organo gisako arauketak gabezia handiak dauzka, bere benetako esanahia zalantzan jartzeko aukera ematen dutenak eta DBEAren Zuzendariaren organo aholkulari gisa duen eragingarritasuna eta erabilgarritasuna kolokan jartzen dutenak, beraz, kontroleko agintaritza horren barruko organo gisa testigantzazko eginkizun hutsera baztertuta geratzen da.

Batetik, kritikagarria da ezer ez esatea epe jakin batean eratu beharraren gainean, horrek esan nahi baitu DBEAk organo aholkulari hori eratu gabe ondo funtzionatu ahal duela eta, hala izanik, kolokan jartzen baita Agentziaren barruko organo honen izatea. Ez da ahaztu behar, esaterako, LCACK Aholkularitzako Kontseilua Legea indarrean jarri eta lau hilabete epean eratzea aurreikusten duela (amaierako bigarren xedapenean).

Baina, gainera, Lege Aurreproiektuari Kotsultarako Kontseiluaren osaketaren arauketari oso arreta gutxi jarri zaiola aurpegiatu behar zaio; lehenik eta behin oso kide gutxi osatzen dutelako eta, horrek, praktikan, botere betearazleari, alegia, gobernuari aholkularitzako organo honen erabakiak kontrolatu eta maneiatzeko ahalbideak errazten dizkiolako, eta bigarren, gerorako lege horrek eragingo dien gizarte eta ekonomia alor garrantzitsu batzuk ordezkaturik ez daudelako. Kontseilu aholkulariko kideen aniztasunak organo honen funtzionamendu hobea bermatuko luke, eta bere proposamenek datu pertsonalen babesean inplikaturako gizarte eta ekonomia alorren eskubideak errespetatu eta kontuan izan ditzaten lagunduko du.

Azkenik, Aurreproiektua ez da DBEAk Herri Administrazioekin eta kontroleko beste agintaritza batzuekin, bereziki datuak babesteko estatuko Agentziarekin izan beharko duen lankidetzaren xehetasunak ezartzen geratzen ere. Horregatik, komenigarria dirudi gerorako lege horretan DBEAren eta Herri Administrazioen arteko administrazioen arteko lankidetzaren hain beharrezko hori eta estatuko Agentziarekin aldioro izan behar duena bermatzeko behar diren ekintza eta neurriak aurreikustea (LCAMeko 20. artikuluan egiten den bezala).

6.- Erabilitako hizkuntza

Kontseiluak gauza bat eskatzen dizue: erabil ezazue genero aldetik sexu bereizkeriarik egiten ez duen hizkera; hau da, "el ciudadano" edo "el Director" erabili beharrean erabil ezazue esapide neutroagoa, esaterako "la ciudadanía" edo "el Director/a".

Ohartarazpen orokorrekin amaitu ondoren, Euskadiko EGBk berriazko beste ohartarazpen hauek ere egin behar dituela uste du:

Berriazko ohartarazpenak

1. artikulua.- Xedea

Euskadiko EGBk uste du arau honen amaierako xedea hobeto definitu behar dela, 15/1999 Lege Organikoak bere 1. artikuluan esplizituki dioen bezala, non bere xedea *"... pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak, eta bereziki pertsonen ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra bermatu eta babestea dela, datu pertsonalen tratamenduari dagokionean"* dela esaten baitu.

Gure ustez, arau zehatz hori aipatzeak, edo hor diena zuzenean errepikatzeak orain aldarrikatu nahi den autonomia erkidego mailako arauaren izpiritua modu egokian kokatzen lagunduko lukete, zeren Zergatien Azalpenean 15/1999 Legearen aipamen hutsa egiteak ezin baita nahikotzat jo, babestea lortu behar den eskubideen garrantziaren zentzualtasuna kontuan izanik. Adibide gisa Madrilgo Autonomia Erkidegoko 8/2001 Legearen 1. artikulua aipa daiteke,

non hauxe dioen: *“Lege honen xedea datu pertsonalen fitxategiak eta Datuak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Agentzia araupetzea da, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren ildotik”*.

Hobeto zehaztu behar zatekeen beste kontu bat, gure ustez, Lege honen xedean espresuki sartuta dauden erakundeen zerrendatzea da. Hartara, 1.1. atalak esparru horretan Eusko Legebiltzarreko fitxategiak jasotzen ditu, baina ez ditu, ordea Batzar Nagusien fitxategiak espresuki jasotzen (Lurralde Historikoetako foru erakundeetako datu pertsonalen fitxategiak bai aipatzen diren arren). Bidezkoa dirudi horiek ere Legearen esparruan sartuta daudela zehaztu izanak.

2. artikulua. Araubide bereziak.

Euskadiko EGBren ustez, bidezkoa litzateke autonomia erkidego mailako arau honetan araupetzen ez diren gai guztietarako 15/1999 legera jotzeko esplizituki esatea.

Legearen aplikazio esparrutik kanpo utzitako fitxategiei dagokienez, 2. artikulua honetako b) atalean terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuko beste modu larri batzuen ikerketarako ezarritako fitxategiak aipatzen dira. Kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzeak sortzen duen segurtasun juridikorik ezaz gain, gure ustez zuzenena Datuak Babesteko Euskal Agentziari halako fitxategiak daudela, zer ezaugarri dauzkaten eta zertarako diren jakinarazteko ahalbidea aurreikustea zatekeen, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 2.2. artikuluan c) atalean egiten duen bezala.

Gainera, osasunaren gaineko datuen babesa dela-eta, 2.2 artikuluan esaten direnak ez daude oso ondo zehaztuta eta ez dira bat ere argiak eta, hartara, badirudi, segurtasun juridikorik ezik ez sortzeko, komeni dela legeak berak espresuki eta argi ezar ditzan osasunaren gaineko datuak babesteko aplikatzekoak izango diren arauak, sentibera gisa sailkatutako datu pertsonalak zaintzeaz ari gara-eta.

3. artikulua. Definizioak.

Fitxategiaren Arduradunaren gaineko berariazko artikulurik ez dagoenez, d) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduraduna izeneko atalean ondoko testu hau gehitu behar dela uste dugu:

“Tratamenduaren helburuaren, edukiaren eta erabilpenaren gainean erabakitze eskumena administrazioko organo desberdinei esleitu zaielako, fitxategiaren arduraduna nor den zehazterik ez dagoenean, fitxategiaren arduraduntzat fitxategiak instrumentalki zerbitzatzen dioneko eskumen materiala zehazten deneko berariazko egitekoaren organo titularra hartuko da. Autonomiadun Erakunde, Zuzenbide Publikoko Erakunde eta gainerako herri erakundeen kasuan, beraien fundaziozko arauak bestelakorik xedatu ezean, fitxategiaren arduraduna erakunde horietako Gerentea edo Zuzendaria izango da”.

4. artikulua.- Fitxategiak sortu, aldarazi eta ezabatzea.

Euskadiko EGBren ustez 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluan 2. atalaren edukia hitzez hitz jaso behar da (Madrilgo Autonomia Erkidegoko 8/2001 Legearen 4. artikulua egiten duen bezala), bertan araupetzen den gaiaren garrantziarengatik. Asmo hori nasai liteke, proposatutako arauaren aurreproiektuaren arauen multzoan oro har aipatutako estatuko legedi horren aipamena egitekotan. Halakorik ez dagoenez, arestian esandako testu hori gehitzea proposatzen dugu. Hona hemen:

“2. Datu pertsonalen fitxategiak sortu edo aldarazteko xedapenek ondokoa adieraziko dute, edonola ere:

a) Zertarako den fitxategia eta aurreikusi zaizkion erabilpenak.

b) Datu pertsonalak zein pertsona edo kolektiborengandik jaso nahi diren, edo nortzuk dauden datu horiek ematera behartuta.

c) Zein den datu pertsonalak jasotzeko prozedura.

- d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena.
- e) Datu pertsonalen lagapenak.
- f) Fitxategiaren ardura daukaten Administrazioeko organoak.
- g) Datuak ikusi, zuzendu, ezereztatu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzeko zein zerbitzu edo unitaterengana jo behar den.
- h) Segurtasun neurriak, oinarritzko maila, maila ertaina edo maila altua exijitu ahal zaien zehaztuz. "

5. artikulua. Datu pertsonalak biltzea.

Artikulu honetan esaten da "Herri Administrazioek eta lege honen 1.1.) artikulua aipatzen dituen gainerako Erakunde, Korporazio eta Entitateek datu pertsonalak, tratamendurako, bakoitzak esleituta dituen eskumenetarako egokiak, bidezkoak eta ez-gehiegizkoak direnean soilik jaso ahal izango dituztela", oro har ukituen baimena izan beharrik ez dagoelarik, "zertarako jaso diren, hau da, helburu jakin, esplizitu eta zilegi horietarako soilik erabili ahal izango diren" arren, aplikatzekoa zaien legediaren arabera, ondoren xede historiko, estatistiko zein zientziakoetarako tratatu ahal izan daitezen kalterik gabe

Beraz, artikulu honek baimena ematen die Administrazioei herritarren datuak behar dituzten guztietan haren baimenik gabe jaso ahal izan ditzaten, tratamenduaren zilegitasunaren arauak errespetatzen badira eta, gure ustez, Administrazioari datu pertsonalen babesaren esparruan nahieran jarduteko ahalmena ematen dio, eta erabat salbuespenekoa den araubide hau ezin daiteke justifika Legeak horrela jasotako datu pertsonalen tratamendua "zertarako jaso diren, hau da, helburu jakin, esplizitu eta zilegi horietarako soilik erabili ahal izango direla" mugatuz, aurkakoa, edonola ere, LOPDren 44.3 b) artikuluan urratze larri gisa zehazten den tratamendu ez-zilegia egitea litzatekeelako.

Era berean, artikulu honetan "ondoren xede historiko, estatistiko zein zientziakoetarako tratatu ahal izan daitezen" ahalbidea ikusten da. Gure ustez, legegileak zehatzagoa izan beharko luke termino juridikoak erabiltzean, eta argitu beharko luke benetan egiten ari dena Administrazioei herri administrazioen artean helburu horietarako datuak elkarri lagatzeko ahalmena aitortzea dela, LOPDk ere uzten duen bezala. "Tratamendu" terminoa generikoa da eta ez du arauak benetan hizpide duen errealitatea hartzen. Era berean, komeniko litzateke jasotako datuak ezin izango direla jasotzeko izan diren helburuekin bateraezinak edo helburu horiez bestelakoak diren helburuetarako erabili aipatzea.

Bestalde, zentsuragarria da Lege Proiektu honek ezer ez aurreikustea herri Administrazioek elkarri emandako datu pertsonalen gainean, kontu horrek beti ardura berezia sortu baitu datu pertsonalen babesaren esparruan. Izan ere, ez da ahaztu behar LORTAD indargabetuaren aplikazioaren ostean etorri zen polemika eta, ondoren oraingo LOPDrekin ere izan zena, hots, Konstituzio Epaitegiaren abenduaren 30eko 292/2000 Epaiarekin amaitu zena, herri Administrazioen artean elkarri datuak ematea aurreikusten zuten hainbat arau konstituzioaren aurkakotzat eta baliorik gabekotzat jota.

6. artikulua. Informazioa interesatuei.

Lege Aurreproiektuaren 5. artikulua horretan, LOPDri jarraituz, ukituak "*herri Administrazioek beren eskumenen esparruan dituzten eginkizunak betetzeko jasotzen dituzten*" datu pertsonalen tratamendurako baimenik eman behar izatea salbuesten den arren, ez dugu uste salbuespen horrek ukituari Lege Organiko horretan aitortzen zaizkion gainerako eskubideak gauzatzeko ilundu edo ez-ezagutzerik daukanik, lege aurreproiektuaren testuak, izan ere, ez baitu halakorik espresuki adierazten.

Horregatik, Lege Aurreproiektuari aurpegiaratu behar zaio lege antolamenduan dauden pertsonen eskubideen salbuespen guztiak ezartzera mugatu den bitartean, ez dituela behar beste bermatu datu pertsonalen babesaren funtsezko eudkia osatzen duten eskubideen gauzatzeko. Hartara, esaterako, datuen bilketan informaziorako eskubideak arreta berezia merezi du, datuen babeseko hatsarre guztiak eta ukituaren eskubideak zaintzeko duen garrantzi handiarengatik, eta lege aurreproiektuak, ordea, ez du berme hori nola gauzatu behar den azaltzen, hau da,

informazioak adierazia, zehatza eta zalantza gabekoa izan beharko du eta, era berean, ez da , datuak interesatuarengandik jasotzen ez direnean, informaziorako eskubiderik esplizituki bermatzen, eta hori aurrerapen garrantzitsua litzateke datu pertsonalen babesaren esparruan. Aurreproiektu honetan ez dira ageri, halaber, tratamenduaren aurka jartzeko eskubidea, datuen tratamendurako interesatuaren baimenik behar ez denean, eta datuen tratamendu batean oinarritutako jokabidearen balorazioak inpugnatzeko eskubidea.

Oro har, 15/1999 Legearen 5. artikulua, zeinen laburpen ez-perfektua den 6. artikulua, ukituek datuen bilketan informaziorako duten eskubidea xehetasunez azaltzen du. Horregatik, EGBk uste du ukituak, datu pertsonalen babesaren berme gisa aitortuta dituen eskubide guztiak aipatu eta espresuki ezagutu behar direla, datu pertsonalen babesaren eskubidearen funtsezko eduki baliaezina delako, edo, gutxienez hura espresuki aipatu beharko litzatekeela.

Artikulu berri bat sartzeko proposamena: Fitxategiaren arduradunaren eginkizunak.

Lege Aurreproiektuak datu pertsonalen tratamenduan fitxategien arduradunaren betebeharrak definitzera berariazko araurik jasotzen ez duenez, eta kontuan izanik fitxategiaren titularraren betebeharren legezko definizio batek neurri handian interesatuaren defentsa eta zaintza sendotzen lagunduko lukeela, komenigarri irizten diogu fitxategiaren arduradunaren eginkizunak jasoko dituen artikulu berria ezartzeari, hitzez hitz hauxe esango lukeena:

“Hona hemen fitxategiaren arduradunaren eginkizunak:

- a) Herritarrek datuen aurka egin, datuak ikusi, zuzendu eta ezereztatzeko dituzten eskubideen gainean ebaztea.**
- b) Bere ardurapeko fitxategien gaineko datuen tratamendua osatzen duten eragiketa eta prozedura desberdinen gauzatzearen gaineko erantzukizunak esleitzea.**
- c) Indarreko araudiaren arabera, fitxategia mende hartzen duten segurtasun neurriak hartzea.**
- d) Datuak Babesteko Euskal Agentziari datuak ikusi, zuzendu, ezereztatu edo aurka egiteko aurreikusitako araubide orokorraren salbuespenen aplikazioaren berri ematea, modu arrazoituan, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.**
- e) Datuak Babesteko Euskal Agentziari fitxategietan eta tratamenduetan izandako aldaketen berri ematea.”**

Artikulu berria sartzeko proposamena: Isilean gorde beharra

Euskadiko EGBren ustez, inplikaturako eskubideen eta balio juridikoen garrantzia dela-eta, fitxategiaren arduradunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen dutenek datuok isilean gorde beharrendaren exijentziaren legezko erreferentzia espresuki eta nahitaez egin behar dela. Horregatik, artikulu bat gehitzea proposatzen dugu, ondoko testu honekin:

“Fitxategiaren arduradunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen dutenak datuon isiltasun profesionala errespetatzera eta datuok gordetzera behartuta daude. Betebehar horiek fitxategiaren titularrarekiko edo fitxategiaren arduradunarekiko harremanak amaitu ondoren ere indarrean edukiko dituzte.”

Artikulu berria sartzeko proposamena: Datuen tratamendua

Lege Aurreproiektu honek kontuan hartzen ez duen beste gai bat datu pertsonalen tratamenduko zerbitzuen prestaziorako kontratuen arauketa da. Ez da, beraz, ezer esaten tratatzen den fitxategiaren titularraren betebeharrei dagokienez, tratamenduaren arduraduna hirugarren bat denean, eta ez dira aurreikusten zeintzuk diren datu pertsonalen tratamenduan arduradun horrek dituen betebeharrak eta eskubideak ere, ez eta zein erantzukizun egotz liezaiokeen ere, legean esaten dena ez betetzekotan. Eta hori beste legedi batzuen adibide onak dauden arren, non kontu hori egoki araupetu duten, hala nola, Datuak Pertsonalak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Legearen 9. artikulua.

Beraz, Euskadiko EGBrentzat ondo dago datuen tratamenduan hain maiz gertatzen den fenomeno hau jasotzea eskatzea, eta honelaxe jasotzea proposatzen du:

"1. Datu pertsonalen tratamendua Lege honetan eta dagokion Estatu araudian ezarritako segurtasun neurrietara doituko da.

2. Herri Administrazioek eta Lege honek 1.1. artikuluan hizpide dituen gainerako Erakunde, Korporazio eta Entitateek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan hirugarrenek datuak eskueran izatearen gainean¹ esaten dena bete beharko dute.

3. Datu pertsonalen tratamenduko zerbitzuen prestaziorako kontratuak Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinaraziko zaizkio, perfektionatu baino lehen.

4. Artikulu honetako 2. atalean esandako zehaztapenak ez betetzeak kontratua etetea ekarriko du, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera diren zehapenen eta sortzen diren kalte eta minen ondorioz etor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe."

8. artikulua. Segurtasuna telekomunikazioen sareetan eta erabiltzaileen gidetan.

Artikulu honen idazketak bereziki zoritxarrekoa ematen du, arauaren xedetik harantzago doazen gaietan sartzen baita. 15/1999 legearen 9. artikuluko 1. atalak dio *"Fitxategiaren arduradunak edo tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datuok aldatu, galdu, edo baimendu gabeko tratamendu edo hedapena saihesteko neurri tekniko eta antolaketa-zerbitzuak hartu beharko dituzte, teknologiaren egoera, gordetako datuen izaera eta giza ekintzaren, ingurune fisikoaren zein naturaren ekintzatik datorren zer arriskuren mende dauden kontuan izanda"*.

Enuntziatua errepikatzea saihesteko aipamena erabil daiteke, CAMEko 8/2001 Legearen 9. artikulua 1. atalean instrumentatzen den eta aurreko ohararazpenean proposatu dugun bezala: *"Datu pertsonalen tratamendua dagokion Estatu Araudian ezarritako segurtasun neurrietara doituko da"*.

¹ **12. artikulua. Hirugarrenek datuak eskueran izatea.**

1. Ez da datuen komunikaziotzat hartuko hirugarren batek datuak ikustea, ikuste hori tratamenduaren arduradunari zerbitzu bat emateko beharrezkoa denean.

2. Tratamenduak hirugarrenek egitea idatziz edo egintza eta edukia kreditatzeko aukera ematen duen beste moduren batean agerraraziko den kontratuan araupetuta egongo da, espresuki ezartzen delarik tratamenduaren arduradunak datuak fitxategiaren arduradunaren jarraibideetan esaten den bezala soilik tratatuko dituela, ez dituela kontratuan ageri den xedeaz bestelako ezertarako aplikatu edo erabiliko, eta ez dizkiola, ezta kontserbaziorako ere, beste inori jakinaraziko.

Kontratuan, era berean, tratamenduaren arduraduna ezartzera behartuta dagoen Lege honetako 9. artikulua esaten dituen segurtasun neurriak zehaztuko dira.

3. Behin kontratuzko prestazioa bete ondoren, datu pertsonalak suntsitu edo tratamenduaren arduradunari itzuliko zaizkio, tratatu den datu pertsonaliker ageri deneko bestelako euskarri edo dokumentuak bezala.

4. Tratamenduaren arduradunak datuak beste edozertarako bideratzen, jakinarazten edo kontratuaren estipulazioak bete gabe erabiltzen baditu, tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta berak pertsonalki egin dituen urratzeengatik erantzungo du.

Esan behar da, gainera, 15/1999 Legeak, 9. artikulua 2. eta 3. artikuluetan, gaia zehazteko xedea duten eta oraindik egin gabe dauden arautegien bidezko garapenak aurreikusten dituela.

9. artikulua. Interesatuaren eskubideak gauzatzeko prozedura.

Artikulu honetan, lehenengo atalean esaten da *“interesatuek datuen aurka egiteko, datuak jakiteko, zuzentzeko, ezereztatzeko eskubideak eta Legeak aitortzen dien beste edozein eskubide gauzatu ahal izango dituztela”*, eta bigarren atalean dio *“Administrazio, erakunde zein korporazio bakoitzak arautegien bidez araupetuko duela arestiko zenbakian esandako eskubideak gauzatzeko prozedura, Lege hau aplikatzeko zaien bere titularitateko fitxategiei dagokienez”*, eta horrela Administrazio bakoitzaren nahieraren mende lagatzen du egoki irizten dion prozedura ezartzea eta interesatua, alde horretatik, Administrazio bakoitzaren borondatearen mende geratzen da.

Horren ildotik, gure ustez zuzena gutxienez Administrazio orok eskubide horien errespetuan jarraitu beharreko lerro edo irizpide orokorrak jartzea zatekeen, intimitatearen, ohorearen zein norbere irudiaren babesa bezalako oinarritzko eskubideak zaintzeko funtsezko edukia osatzen baitute, Administrazio bakoitzak emandako arauak beharrik gabe ugal daitezkeen ekiteaz gain, legegintzako ekonomiaren onerako, eta ikuskatzaileen eginkizunak errazteko, edo bestela gai hori arautzen duen edo arau zezakeen maila goragoko araua aipa zatekeen.

10. artikulua.- Erreklamazioak DBEAren aurrean.

DBEAren aurrean lege honetan esandakoaren aurkako jarduerengatik interesatuek erreklamazioak jarri ahal izango dituztela dioen 10. artikulua honetan, gure ustez erakunde horietan lan egiten duten pertsonen erakundearen barruko esparruan dauden legearen urratze guztiak salatzeko aukera eskainiko dien prozedura definitu behar da, DBEAk jardueraren erregistroa aldioro ikuskatuko lukeelarik. Gainera, erakunde horietako langileei datuen jabeen datu horiek ikusteko baimena dutela egiaztatzeak aukera emango dien prozedura ere definitu behar da. Azkenik, DBEAri lehenengo instantzian erreklamazioak arinago egin ahal izateko mekanismoak ezarri beharko liriteke (telefonoa, gutuna, posta elektronikoa, eta abar).

Bestalde, 3. atalean DBEAren aurrean erreklamazioak egiteko prozedura araupetzen du, agentzia horrek interesatuaren eskubideen zaintzaren gaineko ebazpena emateko sei hilabete edukiko dituela esanez (administrazioaren isiltasuna eskatutako zaintzaren ezespenzat hartuko da), eta epe hori LOPDK hartzen duen epea, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen aurrekusten dena izan arren, egokiago zatekeen Datuak Babesteko Kataluniako Agentziaren apirilaren 19ko 5/2002 Legearen ebazpidea hartu izana, non ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea ematen den (7.2 artikulua), administrazioentzat nahikoa, baina aldi berean interesatuari bere asmoak garaiz gogobetetzea eskaintzen diona ere bai. Sei hilabeteko epea, ordea, ebazpenetarako luzeegia da, edonondik begiratuta, datu pertsonalen babesean inplikaturako eskubideetarako.

Gainera, artikulu hau 15/1999 Legearen 18. artikulua ia hitzez hitz berridatzi dela ikusita, ez dugu ulertzen zergatik aldatu den enuntziatu hori administrazioaren isiltasuna eskubideen zaintzaren eskari baten balizko ebazpen prozesu gisa ezartzeko. Horregatik, eta beste batzuetan ere esan izan dugun bezala, Euskadiko EGBren ustez, atal honetan ezartzen den “ezezko isiltasunaren” aipamena, Administrazioaren Prozeduran jasota dagoen arren, ahal dela administrazioaren jardueratik baztertu beharko litzateke, horrela aitortzen baitu Administrazio Prozeduraren Lege berriak, non ekimena administratua denean, kasu honetan bezala, sartzen den berritasun handia, “baiezko isiltasuna” den.

11. artikulua. Sortzea eta araubide juridikoa

DBEA sortzen duen artikulu honetan, 3. atalean, esaten da *“agentzia hau zuzenbide pribatuaren mende egon dela ondare erosketara eta kontratazioetarako, Herri Administrazioen kontratazioa araupetzen duen legedia nahitaez aplikatu behar zaionean ezik”*.

Hala ere, EAEko Aurrekontu Orokorren mende egongo den erakundea izanik, gure ustez Zuzenbide Publikoari lotu beharko zaio, ondare erosketa eta kontratazioetarako, esaterako, CAMEko 8/2001 Legean egiten den bezala (14.2 artikulua, 3. lerroaldea): *"Ondare eta kontratazioetako harremanetan Zuzenbide Publikoari lotuko zaid"*.

16. artikulua. Zuzendaria.

Ohartarazpen Orokorretan iruzkindu den bezala, Zuzendariaren irudia, datuen babesaren erakunde esparruan, pieza giltzarria da eta bere protagonismoa esleituta dituen eginkizun guztietan independentzia bermatzearen mende dago batez ere. Hala ere, gure iritziz, ez du ematen Lege aurreproiektuaren testuan DBEAren Zuzendariaren independentzia funtzionala errazten duten baldintza aproposak biltzen direnik, zeren DBEAren Zuzendariaren arduraduna hautatu eta izendatzea Eusko Jaurlaritzari esleitu baitzaio, non DBEAren kontsultarako organoek bere Zuzendaritzaren hautapen eta izendapenean parte hartzerik ez den aurreikusten, ezta formalki ere. Horrela zabal-zabal urratzen da datuak babesteko beste lege batzuetan ezarritakoa, hala nola, Datuak Babesteko Kataluniako Agentzian, non Zuzendaria Generalitat-eak izendatzen duen Aholkularitza Kontseiluak proposatuta (13.1 artikulua), eta Madrilgo Erkidegoan, non Zuzendariaren izendapena Datuak Babesteko Kontseiluari dagokion (17.4 artikulua). Kontseilu hori, gainera, hemengo aurreproiektu honetan proposatzen dena baino gizarte espekto zabal eta adierazgarriagoa ordezkatzuz eratuta dago (ikus hurrengo artikulua ohartarazpena).

Horregatik, Euskadiko EGBren ustez, artikulua honen lehenengo atalak haxe jasotzea komeni da: **"DBEAren zuzendariak agentzia zuzentzen du eta agentziaren ordezkaria da. Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez izendatuko da, aurretiaz DBEAk hautatuta, lau urterako"**.

17. artikulua. Kontsultarako Kontseilua.

Euskadiko EGBren ustez, Kontsultarako Kontseiluaren arauketak, DBEAren organo gisa, bere benetako esanahiaren inguruko zalantzetarako tokia uzten duten eta DBEAren zuzendariaren aholkulari izateko eragingarritasuna eta baliagarritasuna kolokan jartzen dituzten gabezia garrantzitsuak dauzkanez, kontroleko agintaritza horren barruko organo gisa testigantza hutsezko paperera baztertuta geratzen da.

Lehenik eta behin, oso arreta txikia jarri zaio Kontsultarako Kontseiluaren eraketa arautzeari, hala osatzen duten kide gutxiengatik (horrek gobernuari aholkularitza organo honen erabakiak hobeto kontrolatu eta erabiltzea errazten dio), nola datorren Legeak hartuko dituen gizarte eta ekonomia alor garrantzitsuen ordezkari falta delako, eta horrek DBEA Euskal Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen babesaren errealiter eta praktika arazotsura gerturatzea zailduko du.

Lege aurreproiektuaren arabera Kontsultarako Kontseilula osatu duten sei kideetatik, lauren izendapena botere politikoaren esku dago, gizarte eta ekonomia alor batzuek DBEA ordezkaririk ez daukaten bitartean, eta horregatik, organo hau, hasiera-hasieratik, interesatuen eskubideak beren datu pertsonalen tratamenduaren aurrean babestu eta zaintzera deituta dagoen DBEAren funtzionamenduari bat ere laguntzen ez dion politizazioaren estigmatorekin sortzen da.

Harrizten gaituen beste elementu bat zuzenean esparru politikoaren mende ez dauden bi aditu bakarrik izendatzea, *"bata informatikan aditua eta bestea oinarrizko eskubideetan aditua, Euskal Herriko Unibertsitateak jarritakoak"*, eta izendapen hori *"aurretiaz EAEko zuzenbide publikoko Korporazioei kontsultatuta"* egin behar izatea. Uste dugu ez kontsulta hori egin beharrik ez dagoela.

Bestalde, kritikagarria da, halaber, epe jakin batean eratu beharraz ezer ez esatea eta, hartara, DBEA aholkularitza organo hau eratu gabe funtzionatu ahal izango du. Horrek organoaren Agentzia barruko organo izaera bera zalantzan jartzen duenez, Kontsultarako Kontseilu hau zentzuzko denbora tarte batean eratzea ezarri beharko litzateke.

Horregatik guztiarengatik, eta 16. artikuluan egindako ohartarazpenaren haritik, Euskadiko EGBren ustez, lehenengo DBEAren Zuzendaria izendatzearen egitekoa gehitu beharko litzateke eta, horregatik, 17. artikulua hasierako testua aldatzea proposatzen dugun, honelaxe:

“Kontsultarako Kontseilua Agentziaren kontsultarako organoa da, Zuzendaria izendatzen du eta bere egitekoetan aholkuak ematen dizkio, eta lege honek araupetzen dituen gaietako bere irizpenak ematen ditu. Ondoko kide hauek osatuko dute (...)”.

Eta azkenean ondokoa dioena gehitzea:

“Eraketako saioan, Kontseiluak Agentziaren Zuzendaria izendatuko du, kideen erabateko gehiengoz. Independentzia kreditatuta, bere eskumeneko gaietako jakintza handia eta kudeaketako gaitasun agerikoa dauzkan pertsona bat izendatu beharko da. Behin izendatuta, eta Kontsultarako Kontseiluko kide izanik, kontseilu burua izango da.”

Eta gainera, Kontsultarako Kontseiluan kide gehiago sartu behar direla uste dugu, EAEko gizarte eta ekonomia eragileen ordezkariak ere egon daitezzen, eta Herri Administrazioen eta Lurralde Historikoen ordezkariak ugaria eta denetarikoa izan dadin.

18. artikulua. Eginkizunak.

18. artikulua DBEAK izango dituen eginkizun desberdinak ezartzen ditu. Ondoko oharra egin behar direla uste dugu:

- 1.a).- CAMEko 8/2001 Legeak etenaldi interesgarria gehitzen du, hemen ere sar litekeena: “... **baita Herri Administrazioen artean datu pertsonalak elkarri emateari dagokionez ere**”, horrekin DBEAREN eginkizuna esparru pribatura zein publikora hedatzen baita.
- 1.d).- Eginkizun honen edukiaren deskribapena generikoegia da. Horren ordezkari ondokoa jartzea proposatzen da: **“Interesatuak beren datuak jakin, zuzendu, ezereztatu eta aurka egiteko dituzten eskubideak babesteko egindako erreklamazioak hartu eta ebaztea, lege honen aplikazioaren esparruaren mende dauden fitxategiei dagokienez”**.
- 1.f).- Eginkizunaren deskribapenaren amaieran ondoko esaldia gehitzea proposatzen da: **“...hori guztia Datuak Babesteko Estatuko Agentziak nazioarteko transferentzien gaian dituen eskumen eskusiboen kalterik gabe”**.

Horren harira, eta artikulua honetan jasotzen diren eginkizunen artean “Datuak Babesteko Estatuko Agentziarekin eta beste Autonomia Erkidegoetako halako erakundeekin lankidetzan aritzea, datu pertsonalean fitxategien eta herritarren fitxategi horiei dagokienez dituzten eskubideen segurtasuna hobeto babesteko behar diren jarduerak guztietan” aipatzen den arren, lege aurreproiektu hau ez da DBEAK Herri Administrazioekin eta kontroleko beste agintaritzak batzuetako arduradunekin, eta bereziki Datuak Babesteko Estatuko Agentziarekin izan behar duen lankidetzaren gorabeherak zehaztera geratzen.

Horregatik, badirudi datorren lege horretan DBEAK Herri Administrazioekin eta, aldioro, Estatuko Agentziarekin izan behar duen administrazioen arteko halabeharrezko lankidetzak bermatzeko behar diren ekintza edo neurriak aurreikustea komeni dela, Madrilgo Erkidegoan Datu Pertsonalak Babesteko uztailaren 13ko 8/2001 Legean ezartzen diren terminoen antzekotasun:

“Administrazioen arteko lankidetzak: Datuak Babesteko Euskal Agentziak beste Herri Administrazio batzuekiko elkarlan eta lankidetzarako behar diren ekintzak jarriko ditu abian, eskubideak gauzatzeko eta datu pertsonalak babesteko ezarritako bermeak betetzeko baldintza egokiak sortzera begira, baita interesatuak partaidetza sustatzera eta segurtasun sistemak garatzeko neurriak hartzera begira ere. Aldian-aldian, Datuak Babesteko Euskal Agentziak Datuak Babesteko Estatuko Agentziari Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Pertsonalen Erregistroaren edukia helaraziko dio.”

- 1.h).- Arestiko aldarazpen baten haritik joateagatik, eginkizunaren deskribapenaren amaieran ondoko esaldi hau gehitzea proposatzen da: "...**baita lege honen aplikazioaren esparruaren barruan dauden datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldarazi eta ezabatzeko xedapenak ere**".

19. artikulua. Datuen Babesaren Erregistroa.

Artikulu honen bidez, DBEAn integratutako organo gisa, Datuak Babesteko Erregistroa sortzen da, eta inskribatuko diren fitxategiak, datuak eta baimenak definitzen dira. Gainera, esaten da Erregistro hau kontsulta publiko eta dohainekoa izango dela eta, hartara, edozein pertsonak jakin ahal izango du datu pertsonalen tratamenduak daudena, zertarako diren eta nor den tratamenduaren arduraduna.

Prestutasun handiko erregistro publikoa eraikitzea proposatzen dugu, datu pertsonalak eman zizkieten pertsona edota erakundeen zerrenda eta datuen zerrenda bilduko dituen.

25. artikulua. Zuzenbide publikoko Herri Administrazioek, Erakundeek eta Korporazioek egindako urratzeak.

24. artikuluan diru zehapenak ezartzen diren bitartean, 25. artikuluan diziplinazko jardueren ahalbidea aipatzen da, baina ez da argi adierazten noiz aplikatzen diren batzuk eta noiz besteak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Fitxategien jakinarazpena DBEAri.

Lege aurreproiektu honetan ez da ezer esaten datu pertsonalen tratamendu ez-automatizatuen arauketaren gainean, legeak tokirik aurkitzen ez dutela diruditenak. Horregatik, eta puntu honetan LOPDn (lehenengo xedapen gehigarrian) eta Datuak Babesteko Kataluniako Legean ezarritakoari jarraituz, Legearen aplikazioaren esparruan sartzen diren erakundeen datu pertsonalen fitxategi ez-automatizatuen inskripziorako eta arauketarako epe bat jartzea gomendatzen da. Hartara, Kataluniako Legeak bi urteko epea aurreikusten du Lege hori indarrean jartzen denetik zenbatuta (bigarren xedapen gehigarria), eta LOPDk hamabi urteko epea, 1995eko urriaren 24tik zenbatzen hasita, hori guztia ukituak bere datu pertsonalen tratamenduerengatik aitortuta dituen eskubideak gauzatzearen kalterik gabe. Horregatik, lehenengo xedapen gehigarri honen testuari ondoko lerroalde hau gehitzea proposatzen dugu:

"Lege honen 1.1) artikulua hizpide dituen Herri Administrazioen, Erakundeen eta Korporazioen titularitateko datu pertsonalen fitxategi eta tratamendu ez-automatizatuen kasuan, lege honetara egokitzea eta arestiko lerroaldean esandako betebeharra lege hau indarrean jarri eta lau urteko epean beteko da, ukituek datuak jakin, zuzendu eta ezereztatzeko dituzten eskubideak gauzatzearen kalterik gabe."

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBEk ondo eta egoki deritza herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektua izapidetzeari, baina kontsultarako erakunde honek egin dituen ohartarazpenak kontuan hartuta.

Bilbon, 2002ko abenduaren 4an

O.I Lehendakaria
Rafael Puntonet del Río

Idazkari Nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea